



IRAGARKIA-BANDO

ALKATEAK, JAKINARAZTEN DU: **EL ALCALDE, HACE SABER:**

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Beste behin ere, Aguraingo emakume batek, duela urte batzuk jasaten ari zen indarkeria egoera amaitzea erabaki du; hain zuzen ere, indarkeria fisikoa, psikologikoa eta ekonomikoa jasan ditu. Eta Agurainen gertatutako indarkeria matxistarekin zerikusia duen azken kasu honen aurrean Aguraingo Udalak gogorarazi nahi dio biktimari ez dagoela bakarrik eta bere elkertasuna adierazi nahi die berari eta bere alabei eta semeari. Halaber, biktimaren ausardiari balioa ematea nahi diogu, aspalditik bizi zuen indarkeria-zirkulua apurtzeko urrats hori emateagatik.

Halaber, Aguraingo Udalak argi utzi nahi du gizon eta emakumeen berdintasunik eza dagoela halako erasoan oinarri-oinarrian, baita emakumeak kontrolpean ere izan nahi dituzten jarrerak eta ideia matxistak ere. Horregatik, beste behin ere, gizon eta emakumeen berdintasunaren aldarrian jartzen dugu azpimarra. Emakumeen, beraren alaben eta semeen duintasuna, integritate fisikoa eta psikologikoa eskubide urra ezinak dira. Eskubide horien aurkako ekintzak erabat gaitzesgarriak dira, eta ez dute lekurik gure gizartean.

Aguraingo udalak herritarrei dei egin die bortizkeria matxistaren aurkako jarrera eta konpromisoari eusteko, inoiz baino gehiago erne jarraitzeko, biolentzia jasaten ari diren emakumeek erakundeon eta komunitate osoaren babesa jaso dezaten.

Hori de la eta, Aguraingo Udalak dei egiten die udalerriko herritar guztiei Mugimendu Feministak antolatutako kontzentrazioan parte hartzera **ostiralean, hilak 17, San Juan enparantzan, 18:30an**, indarkeria matxista gaitzesteko eta une latz hauetan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei, haurrei eta, oro har, adingabeei babesa emateko.

Agurainen, 2024ko maiatzaren 16an.

DECLARACION INSTITUCIONAL

Una vez más una mujer de Agurain ha decidido poner fin a la situación de violencia que estaba sufriendo hace años: más concretamente violencia física, psicológica y económica. Ante esta decisión el Ayuntamiento de Agurain quiere recordarle que no está sola y quiere mostrarle su más sincero apoyo a ella, sus dos hijas y su hijo, además de poner en valor la valentía de la víctima por haber dado este paso para romper el círculo de violencia en el que vivía desde hace tiempo.

Así mismo, el Ayuntamiento de Agurain quiere dejar claro que este tipo de hechos tiene su origen en la falta de igualdad entre hombres y mujeres, y en las actitudes e ideas machistas que quieren tener sometidas y bajo control a las mujeres. Por todo ello, una vez más, ponemos el acento en la reivindicación de la igualdad de mujeres y hombres. El respeto a la igualdad, así como la integridad física y psicológica de las mujeres, sus hijas e hijos son derechos inviolables, y las conductas que atentan contra estos derechos no tienen cabida en nuestra sociedad.

El Ayuntamiento de Agurain llama al conjunto de la ciudadanía a no bajar la guardia contra de la violencia machista, para que las mujeres que estén pudiendo sufrir esta situación puedan sentir todo el apoyo de la sociedad.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Agurain hace un llamamiento a toda la ciudadanía del municipio a participar en la concentración convocada por el Movimiento Feminista de Agurain que se realizará el **viernes 17 de mayo en la plaza San Juan a las 18:30** para mostrar el rechazo a la violencia machista y el apoyo en estos duros momentos a las mujeres, niñas, niños y menores en general víctimas de violencia de género.

En Agurain, a 16 de mayo de 2024.

Raúl López de Uralde Baltasar
ALKATEA/ALCALDE